



## OHIKO GALDERAK

- Nola lor dezaket lehiaketari buruzko informazioa?
- Nola lor dezaket Intraneteko informazioa?
- Internetez nola egin dezaket eskaera?
- Internetez nola sartu naiteke lehiaketa baten informazio espezifikora?
- Nor aurkez daiteke lehiaketa hauetara?
- Behin-behinean atxikitakoak
- Dagokien titulazioa izanez gero, aurkez naiteke nire kidegokoak ez diren lanpostuetara?
- Nola bideratu behar dut nire eskabidea?
- Nola eskuratu ditzaket lanpostuen monografiak?
- Nola eta noiz jarri behar ditut eskatu nahi ditudan lanpostuen lehentasunak?
- Nola arautzen da lehiaketa?
- Nola egiaztatzen dira betekizun espezifikokoak?
- Nola baloratuko dira merezimendu orokorrak?
- Zer alegatu behar dut?
- Zer egiaztatu behar dut?
- Nola egiaztatu merezimendu berriak?
- Zer esan nahi du lehiaketan atzera egiteak?
- Zer gertatzen da lehenengo tokian banago bi lanpostu esleitzeko?
- Erresulta-faserik badago?



- [Nola lor dezaket lehiaketari buruzko informazioa?](#)

Helbide hauetan dago lehiaketari buruzko informazioa:

- Internet: [www.euskadi.net/lehiaketa](http://www.euskadi.net/lehiaketa)
- Intranet: Jakina/Langilearen ataria

- [Nola lor dezaket Intraneteko informazioa?](#)

Jakinatik; "Nabarmenduak" atalean egongo da lehiaketetarako sarbidea. Langile guztiek –lehiaketan parte hartu edo ez– kontsultatu ahalko dituzte:

- Oinarri orokorrak eta espezifikokoak
- Eskaintzen diren plazak
- Langileen erregistroa
- Lehiaketaren egoera
- Eskatu gabeko lanpostuen zerrenda
- Lanpostura onartutako eta baztertutakoen zerrenda
- Lehiaketan esleitu ez diren lanpostuen zerrenda

Gainera, **aplikazio honetatik eta internetetik lehiaketetarako eskabideak egin ahalko ditu interesdunak**, eta, horretaz gainera:

- Balorazio Batzordeak hartzen dituen erabaki guztiak kontsultatu
- Alegazioak aurkeztu Langileen Erregistroan aitortutako datuen aurka
- Erreklamazioak egin Balorazio Batzordeak hartutako erabakien aurka
- Eskabideak kontsultatu
- Monografiak kontsultatu
- Merezimenduen balorazioa kontsultatu
- Esleipenen zerrenda kontsultatu,

Lehiaketan parte hartzen dutenek, eskabidean helbide elektronikoa jarri badute, argitalpen berriei buruzko mezu elektronikoa bat jasoko dute, Balorazio Batzordeak erabaki bat hartzen duen bakoitzean.

- [Internetez nola egin dezaket eskaera?](#)

Zure eskaera Internetetik egin ahal izateko beharrezkoa izango da PIN bat izatea. PIN hau lortzeko mezu bat bidali behar izango duzu, zure izena, abizenak eta zure helbide elektronikoa esanez, Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren helbide honetara:

[provision-seleccion@euskadi.eus](mailto:provision-seleccion@euskadi.eus)

- [Internetez nola sar naiteke lehiaketaren informazioa?](#)

Internet bidez lehiaketaren informazio guztia jakina ahalgo duzu; horretarako beharrezkoa izango da bete PIN baten bidez identifikatzea.

PIN hau eskabidean jarritako helbide elektronikora bidaltzen da, gehienez ere astebeteko epean, "Behin-behingo onartuak, postuaren arabera" izeneko txostena argitaratzen denetik hasita.

- [Nor aurkez daiteke lehiaketa hauetara?](#)

C1, C2 Eta E titulazio-taldeetako karrerako funtzionarioak, baldin eta bi urte igaro badira lehiaketa batean edo EPE batean azken postua eskuratu zutenetik.

- [Behin-behinean atxikitakoak](#)

Honako hauek nahitaez parte hartu beharko dute lehiaketa hauetan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostu batean behin-behineko atxikipena duten funtzionarioek.
- Osakidetzako erakunde publikora pasatu diren lanpostuetan behin-behineko atxikipena duten langileak.

Lehiaketa ebatzita, behin-behineko atxikipenaz dauden langileak, baldin eta lehiaketan beste lanposturik lortzen ez badute eta dauden lanpostuetatik mugiarazten badira, beste lanpostu bati atxikiko zaizkio berriz. Lehenbizi, lehiaketan parte hartu bai baina destinatorik lortu ez duten funtzionarioak atxikiko dira, eta, gero, lehiaketan parte hartu ez dutenak.

- [Nola bideratu behar dut nire eskabidea?](#)

"Jakina/lehiaketa" guneko aplikazioaren bidez eta interneten bidez bideratu behar dira eskabideak. Eskabidea hartu izanaren agiria inprimatu ahalgo du interesdunak, eta han alegatutako datu guztiak agertuko dira, bai eta eskatutako lanpostuak, hurrenkera eta eskabidearen egoera ere.

**KONTU EGIN: Bakarrik onartuko dira egoeran ITXITA daramaten eskabideak. Gainerakoak burutu gabekotzat joko dira (egoeran Izapidetzen edo Baliogabetuta daramatenak)**

Administrazio honetan zerbitzu aktiboan egon ezean, eskabidea eranskin moduan aurkez daiteke, oinarri espezifikoetan. Kasu horretan, oso garrantzitsua da argi eta zuzen adieraztea harremanetarako informazioa (helbide elektronikoa, telefonoa eta helbidea), bai eta eta eskatutako lanpostuen hurrenkera ere; izan ere, hurrenkera hori ezingo da aldatu behin eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan.

- Dagokien titulazioa izanez gero, aurkez naiteke nire kidegokoak ez diren lanpostuetara?

Ez.

Salbuespen hori zerbitzu-eginkizunen esparruan baino ezin da egin, halaxe jasota baitago indarrean dagoen lan-baldintzen akordioan.

- Nola eskuratu ditzaket lanpostuen monografiak?

EIZU Langilearen Ataritik lor daitezke lanpostu guztien monografiak.

Gainera, lehiaketaren aplikaziotik ere jo daiteke lehiaketako lanpostu hutsen monografietara, lanpostuen kontsultan.

- Nola eta noiz jarri behar ditut eskatu nahi ditudan lanpostuen lehentasunak?

**Eskabidea egiten duzunean. Hautatzen dituzun lanpostuen zerrendako hurrenkerak markatzen du lehentasunaren irizpidea.**

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan ezingo da aldaketarik egin, oinarri orokorrek hala ezartzen dute eta.

**Kidego diferenteetan eskainitako lanpostuetan parte hartu duten langileek lanpostu horiek guztiak ordenatu beharko dituzte, lehentasunaren hurrenkeran.**

Horretarako, Funtzio Publikoaren sailburuordearen ebazpen baten bidez, bost egun balioduneko epea irekiko da interesdunek lanpostu guztiak lehentasun-hurrenkeraren arabera erregistratu ditzaten. Eta ezingo da kidego bakoitzaren barruan markatutako lanpostu-hurrenkerak aldatu, baina bai haiek tartekatatu.

- Nola arautzen dira lehiaketa?

Alde batetik, lanpostuak betetzeko indarrean dagoen araudiak agintzen du, eta, bestetik, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren Aginduak, 2018ko maiatzaren 2koak, zeinean parte hartzeko baldintzak, prozedura, merezimenduen balorazioa eta ebazpena, eta halaber Balorazio Batzordearen izendapena eta eskainitako dotazioen deialdia ezartzen baitira.

- Nola egiaztatzen dira betekizun espezifikoak?

Mota bat baino gehiago dago betekizun espezifikoetan:

- Ziurtagiri, titulu edo baimen baten jabe izatea; hori egiaztatzeko, kopia konpultsatuta bat erabili beharko da, eskumena duen erakunde ziurtatzaileak egina, betiere Langileen Erregistroan jasota ez badago.
- Jakintza batzuk izatea: proba baten bidez egiaztatu daitezke.
- Esperientzia izatea, ezaugarri jakin batzuk betetzen dituzten lanpostuetan. Datu horiek langileen erregistroan jasota daude, eta ofizioz txertatuko dira.

- Nola baloratuko dira merezimendu orokorrak?

### Lan-esperientzia

Hamar (10) urte baloratuko dira, gehienez ere.

Administrazio honetan izandako esperientzia baloratzeko, betetako lanpostuei buruz indarrean dagoen monografia hartzen da erreferentzia gisa. Eta lanposturen bat amortizatuta baldin badago, lanpostuari buruz dauden datuak aztertuz baloratuko da.

Beste administrazio publiko batzuetan lan egin dutenek beti alegatu eta egiaztatu beharko dituzten lanaldi horiek, eta betetako lanpostuei buruz aurkezten duten monografiaren arabera baloratuko zaizkie. Monografiarik ez baldin badago, egindako lana ziurtatzeko agirian ageri diren funtzio eta atazen arabera baloratuko da.

Oinarri orokorretan zehazten dira balorazio-irizpideak.

### Tituluak

Ikasketa-titulu ofizialak baloratuko dira, bai eta izen handiko erakundeek eta unibertsitateek emandako tituluak ere.

Ikasketa-titulu ofizialak baloratuko dira, non eta ez diren horiek eskatu langilea dagoen kidego edo eskalara iristeko.

Gerta daiteke lanpostu berbera eskatzea titulu-maila ezberdinetako kidego edo eskaletako zenbait lehiatzailek. Halakoetan, beheko taldeko langileei ezingo zaizkie merezimendu modura baloratu goiko mailako kidegora edo taldera iristeko eskatzen diren titulu ofizialak.

Merezimendu modura aurkezturiko goragoko beste titulu bat lortzeko behar diren tituluak ere ez dira baloratuko.

### Hobekuntza ikastaroak

Baloratu egingo dira lortu nahi den lanpostuaren berezko atazekin edo lan hori egiteko behar diren trebeziekin zerikusia duten gaietan hobetzeko ikastaroak, baldin eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, unibertsitateek edo beste administrazio publiko batzuek antolatuta edo homologatuta badaude edo izen handiko erakundeek emandakoak badira (prestakuntza-gaietan, giza baliabideen garapenean, lanbide-kualifikazioan edo ikerketa-arloan izen handikoak diren erakundeak).

10 urte baino lehenago egindako ikastaroak: 150 ordukoak edo gehiagokoak direnak baino ez dira baloratuko.

### Euskara

Euskara baloratu ahal izateko, eskaturiko lanpostuak ezin du eduki derrigortasun-data iraungirik lanpostu-zerrendan.

### Gradua eta Antzinasuna

Antzinasunari dagokionez, karrerako funtzionario bilakatu baino lehenago betetako zerbitzuak ere baloratuko dira, betiere hala aitortuta badaude. Lehenago alegatu diren zerbitzuekin batera egindako beste batzuk ez dira kontuan hartuko.

Abiaburu duen kidegoan langileak finkatuta duen gradu pertsonala baloratuko da, eskuratu nahi duen lanpostuaren destino-osagarriaren mailari dagokionez.

- [Zer alegatu behar dut?](#)

**Langileen erregistroan dauden betekizunak eta merezimenduak alegatuzat joko dira beti, eta ofizioz baloratuko dira.**

Langileen Erregistroan jaso gabeko merezimendu guztiak alegatu beharko dira eskabide guztietan. Eskaera Intranet-en bitartez egiten baduzu, Langileen Erregistroan zutaz zer datu dauden jakinaraziko zaizu. Informazio horretan ez dagoen guztia nahitaez alegatu beharko da.

Eskabidea paperean egiten baduzu, Langilearen Atariaren bitartez jakin daiteke zer datu dauden erregistro horretan, datu pertsonalak atalean sartuta; lehenago, ordea, XL-Net-en identifikatu behar da. Bide horretatik ezin bazara sartu, Funtzio Publikoko Zuzendaritzara jo dezakezu zure historia administratiboa eskuratzeko.

- [Zer egiaztatu behar dut?](#)

Langileen Erregistroan jasota ez dauden merezimendu guztiak egiaztatu beharko dira, agiri bidez. Eskaera Intranet-en bitartez egiten baduzu, Langileen Erregistroan zutaz zer datu dauden jakinaraziko zaizu.

- [Nola egiaztatu merezimendu berriak?](#)

Merezimenduak egiaztatzeko, oinari orokorretan ezarritakoari jarraituko zaio, eta Funtzio Publikoko zuzendariaren 2015eko irailaren 4ko Instrukzioari.

Halaber, Jakinako Erregistroaren atalean fitxa batzuk aurkituko dituzu: bete egin beharko dituzu, eta entregatu, aurkeztu beharreko gainerako egiaztagiriekin batera.

Dokumentua zein funtzionariori edo agintariri aurkeztu zaion, horri dagokio merezimenduen egiaztagirien kopia konpultsatua egitea, betiere dokumentua jasotzeko gaitasuna badu; alegia, kopia konpultsatua sartuko den espedientea tramitatzen arduradunak konpultsatuko du, edo Funtzio Publikoko Zuzendaritzara bidaltzeko ardura duenak.

Horretarako, jatorriko dokumentua eta kopia bat aurkeztu beharko dira, alegatutako dokumentu guztiak erkatzeko.

Interesdunak ezin izango du aurkeztu beste organo batzuek konpultsatutako kopiarik.

Ondoren, merezimendu bakoitzerako informazio funtsezkoa zehazten da, beharrezkoa baita Erregistroarako Instrukzioaren arabera erregistratu ahal izateko; oinarri orokorren arabera baloratzekoak diren eremuak ere zehazten dira.

- [Zer esan nahi du lehiaketan atzera egiteak?](#)

Lehiaketan parte hartzeari uko egitea, hori esan nahi du lehiaketan atzera egiteak. Eskabide batean atzera egiteak erreferentziako eskabide horretan baino ez ditu ondorioak; beraz, lehiaketa baten atzera egiteak ez du eraginik beste lehiaketetan egiten diren eskabideetan.

Lehiaketako lanpostuen behin-behineko esleipenaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea amaitzen denean bukatuko da lehiaketan atzera egiteko epea.

- [Aurkez naiteke lehiaketa batean baino gehiagotan iragarritako lanpostuetara?](#)

Bai.

Lehiaketa batean parte hartzeko, iragarritako lanpostuetan eskatutako betekizunak bete behar dira. Lehiaketa batean baino gehiagotan parte har daiteke, eta lanpostu bat baino gehiago eska daitezke lehiaketa berean.

- [Zer gertatzen da lehenengo tokian banago bi deialdiri dagozkien bi lanpostu esleitzeko?](#)

Oinarri orokorretan bada betebeharrak bat: parte hartzen den lehiaketa guztietan eskatutako dotazioak ordenatu egin behar dira, lehentasunen arabera; azken fasean egingo da hori, eskabide espezifiko bat aurkeztuta.

- [Erresulta-faserik badago?](#)

Ez.

Lehiaketa honetan hutsik geratzen diren lanpostuak hurrengoan iragarriko dira, non eta, duten maila edo kokapenagatik, LEP baterako direla jotzen ez den.